

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

22/2015 Foru Araua, abenduaren 29koa, zerga jakin batzuen araudia aldatzen duena

Arabako Batzar Nagusiek 2015eko azaroaren 29an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

22/2015 Foru Araua, abenduaren 29koa, zerga jakin batzuen araudia aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Foru Arau honek xede du aldaketa zehatz batzuk egitea Arabako Lurralde Historikoan aplikatzekoa den zerga sistema osatzen duten hainbat zergatan.

Hortaz, hona hemen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan egiten diren aldaketa aipagarrienak:

– Langabeziagatiko prestazio bakarrari dagokion salbuespenean, ez da eskatzen akzioari edo partaidetzari bost urtez eutsi beharrik, edo bost urteko epean jarduerarekin jarraitzerik, baldin epe hori ez bada betetzen konkurtso prozedura batek eragindako enpresaren edo jarduera ekonomikoaren likidazioaren ondorioz.

– Jarduera ekonomikoei dagokienez, honako hau argitu nahi da: sozietateen gaineko zergan jasotako konpentsazioak eta erreserbak ez dira aplikagarri izango pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan. Azalpen hori zergaren araudira sartzen da, segurtasun juridikoaren mesedetan.

– Higigarrien kapitalaren etekinak arautzean, xedatzen da ez dela etekintzat hartuko kapital propioak hirugarrenei lagatzearen adierazgarri diren aktiboak dohaintzan ematearen ondorioz sor daitekeen etekin garbi negatiboa, inter vivos egintzengatik kostu gabe egindako eskualdaketatik edo eskuzabaltasunetatik datozen ondare galeretan dagoeneko xedatuta dagoenarekin batera.

– Kreditu mugaeguneratu eta kobratu gabeetatik eratorritako ondare galeren aldi baterako egozpena zehazten da, eta horri dagokion erregimen iragankorra ezartzen.

– Berariaz jasotzen da hurrengo bost ekitaldietan zergadunaren gizarte aurreikuspeneko sistemetara egotzitako edo emandako diru kopuruak murrizteko aukera, baldin ezin izan badira murriztu zerga oinarri orokorrean, gutxiegi zelako.

– Hamar urtetik bost urtera murrizten da aurrezpen sistematikorako banakako planetan lehenengo primaren eta bizi arteko errenta eratzen den unearen artean eskatzen den gutxieneko epea.

– Zordunak konkurtso prozeduretan eskuratutako errentak salbuetsiko direla ezartzen da, betiere zorrak ez badira sortu jarduera ekonomikoak egitetik.

– Kendu egiten da konpentsazio fiskala aplikatzeko aukera 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen kontratatutako banakako bizitza edo baliaezintasun kontratuei. Aldaketa horrek 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina.

Hona hemen sozietateen gaineko zergan egiten diren aldaketa aipagarrienak:

– Berariaz arautzen da ez direla kengarri izango araturen bat urratzetik eratorritako berandutze interesak.

– Interes ekonomikoko talde espainiar eta europarretan, edo enpresen aldi baterako elkar-ketetan, zergak dagokien erregimen berezian ordaintzen dituztenetan, doitu egiten da zerga oinarri positiboaren ehuneko 20ko forfaitaren ezarpena, mikroenpresen tamainari datxezkion zailtasunen konpentsagarri, bikoiztasunik egon ez dadin.

– Era berean, eta xede berarekin, zerga oinarri positiboaren ehuneko 20ko forfaitaren ezarpena doitzen da mikroenpresatzat jotzen diren talde fisikaletan ere.

Kooperatiben zerga araubideari dagokionez, ebatzi egiten da sozietateen gaineko zergaren kuota efektiboa kalkulatzeko sortutako arazoa; izan ere, arazoa sortu zen, batera biltzen zirelako babes berezia duten kooperatibek aplika zezaketeko kuota likidoaren ehuneko 50eko kenkaria (zerga araubide hori arautzen duen foru arauan jasoa) eta sozietateen gaineko zergaren foru arauak xedatutako mugadun eta mugarik gabeko kenkariak. Aplikatzea eta kalkulatzea agintzen da.

Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan, zerga oinarriaren murrizketak aplikatzearen ondorioetarako, besteak beste, zerga horretara ekartzen da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan ezinduen eta mendetasuna duten pertsonen artean ezarritako parekidetasuna.

Ondarearen gaineko zergan, ondasun jakin batzuen balioztatzean kontabilitate balio garbia aplikatzeari buruzko xehetasunak sartzeko dira, eta beste aldaketa batzuk ere egiten dira.

Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan, foru araua egokitu egiten da urriaren 14ko 44/2015 Legeak, sozietate laboral eta partaidetuenak, egindako aldaketara.

Bestalde, Ogasun publikoak zerga iruzurraren aurka dauzkan baliabideak indartzeko dagoen premiak ez du soilik eskatzen errepresio hutsera zuzenean eta horretarako baino ez bideratutako neurriak hartzea, ezpada beste era bateko neurriez baliatzea ere; izan ere, iruzurrik ez egiteko hertsapena etor daiteke gizartearen gaitzespen handia daukaten jarrerak argitaratetik, eta horrek botere publiko guztien jarduna arautu behar duten gardentasun eta publikitate printzipioen babesa dauka.

Horregatik, foru arau honen bidez Zergen Foru Arau Orokorriaren eransteko neurriak, zordunen zerrendak argitaratzearenak, badu kokaleku bat eta da zerga betebeharrak borondatez betetzera laguntzen duten prebentzio eta hezkuntza baliabideak sustatzearen bidez zerga iruzurraren aurka borrokatzea.

Neurriak zerga datuak errespetatzen ditu; beraz, baita neurriak oinarri dauzkan printzipioak ere, ezin ahantz daitekeelarik arlo honetan zein garrantzitsuak diren intimitaterako eskubidea eta zerga sistemaren eraginkortasuna indartzea, hori guztia kontuan izanda jarrera jakin batzuk baino ez direla argitaratuko; hain zuzen ere, iruzurraren zenbatekoagatik gizartearen gaitzespena jasotzen duten zerga jarrerak, eta hori dela-eta legegileak ogasun publikoari ekonomia kalte handiak eragiten dioten jarrerak baino ezingo ditu argitaratu; alegia, borondatezko epealdian diru sarrerak egiteko araudiak ezarritako epeetan ordaindu gabe ibiltzea dakarten jarrerak.

Funtsean, egoki haztatu behar dira babestu nahi diren interesak, eta hori batez ere kontuan izanda abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoan, jasoriko datuen proportzionaltasun, zehaztasun eta zaintzaren printzipioak. Hala egiten da gure inguruko beste herrialde batzuetan ere, hala nola Alemanian edo Finlandian, non zerga datuen konfidentzialtasunaren printzipio orokorrak salbuespen kasuak baititu. Oreka bilatu nahian arau tasatuak sartzeko dira, argitaratu beharko diren zerrendak taxutzeko.

Kontuan izanda zein berritzailea den testua horri dagokionez, eta ikusita zein garrantzitsuak diren testuak eragindako ondorioak, arauak ezartzen du interesdunek administrazioarekiko auzien jurisdikziora zuzenean jo dezaketela, baldin eta irizten badiote beren datuak argitaratzea ez zaiola lotzen zuzenbideari.

Arauketa hori irailaren 10eko 10/2015 Lege Organikoan, iruzur fiskalaren arloan emandako epailetan dagoen informazio zehatzera iristea arautzen duenean, ezarritako xedapenekin osatzen

da, ez bailitzake koherentea izango zerga betebeharrak ordaintzeari utzi diotenen nortasuna argitaratzea baina ezkutuan uztea delitu handiak egiteagatik epai irmo baten bidez kondenatuak izan diren iruzurgile handienena.

Bestalde, aldatu egiten da hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga, pertsona fisikoek egindako eskualdaketak salbuesteko, hipoteka zor duenaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainean emateagatik haren gaineko hipotekekin bermatutako zorrak kitatzeko, baldin eta zor horiek kreditu erakundeei edo mailegu eta hipoteka kredituak ematea ogibidetzat daukan beste edozein erakunderi zor bazaizkie. Egoera horren parean daude zordunaren ohiko etxebizitza eskuratzeko sortzen diren zorrak bermatzeko abal emaileek ordainean emandakoak. Halaber, ordaintzetik salbuetsita daude baldintza horiek betetzen dituzten eta epaileek edo notarioek aginduta hipotekak betearaztearen ondorioz egiten diren etxebizitza eskualdaketak.

IX. kapituluan banku fundazioen zerga araubidea arautzen da, eta abenduaren 27ko 26/2013 Legeak, aurrezki kutxa eta banku fundazioenak, banku fundazioen figura txertatu du ordenamendu juridikoan. Hain zuzen ere, lege horrek ezarri du baldintza jakin batzuk betetzen dituzten aurrezki kutxak banku fundazio bihurtu behar direla. Arau hori Espainiako Erresumak eta Europar Batasuneko gainerako estatuek finantzen sektorea behar bezala berrantolatzeke sinatutako adostasunerako memorandumeko elementuetako bat da. Haren arabera, finantzen sektorearen tamaina eta konfigurazioa egokitu behar ziren, eta egungo egoera ekonomikoa are gehiago ez larritzeko oinarriak ezarri.

Abenduaren 27ko 26/2013 Lege horrek aldaketak egiten ditu sozietateen gaineko zergan, balio erantsiaren gaineko zergan eta ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan, banku fundazioen zerga araubidea ezartzeko.

Gainera, azaroaren 29ko 14/2013 Errege Lege Dekretuak, Espainiako zuzenbidea Europar Batasuneko finantza erakundeen gainbegiratzeko eta kaudimenari buruzko araudiaren arabera egokitzeko premia neurrien gainekoak, lurralde erkideko ordenamendu juridikoan txertatu ditu aurreikuspen batzuk, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 Erregelamendua (EB), kreditu entitateei eta inbertsio enpresei zuzentzeko ezarri beharreko betekizunei buruzkoa eta 648/2012 Erregelamendua (EB) aldatzen duena, indarrean jarri izanaren ondorio direnak.

Alde horretatik, komenigarritzat jotzen da arautu dadila, operadore ekonomikoen segurtasun juridikoak banku fundazioen figura juridiko berrirako agertoki benetako eta egonkorra zehaztea gomendatzen duen neurrian.

I. KAPITULUA. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

1. artikulua. Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergarena, aldatzea

Lehenengoa. Zenbait aldaketa egiten dira azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergarenean, eta aldaketa horiek 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak. Hona hemen:

Bat. 9. artikuluko 7. zenbakia honela geratzen da:

“7. Aurreko paragrafoan adierazitako kalte berdinengatik aseguru kontratuen bidez jasotzen diren zenbatekoak, 150.000 euroko mugarekin. Zenbateko hori 200.000 euro izango da lesioak jasotzailea edozein lan edo jarduera egiteko ezgaitzen baldin badu, eta 300.000 eurokoa izango da baldin eta, horrez gainera, jasotzaileak beste pertsona baten laguntza behar badu eguneroko bizitzako oinarrizko ekintzetarako.”

Bi. 9. artikuluko 13. zenbakia honela geratzen da:

“13. Dagokion entitate kudeatzaileak aitortutako langabezia prestazioak, ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuak, langabeziako prestazioak ordaintzeko bakarreko modalitatean

ordaintzea arautzen duenak, ezarritako ordainketa bakarrek modalitatean jasotzen direnean, baldin eta jasotako zenbatekoak aipatutako errege dekretuan ezarritako helburuetara bideratzen badira eta bertan aipatzen diren kasuetan ematen.

Zergaduna lan sozietate edo lan elkartuko kooperatiba batean sarturik badago edo ekarpena egin badu merkataritzako entitate baten kapitalera, aurreko lerroaldean adierazi den salbuespena aplikatu ahal izateko ezinbestekoa izango da akzioari edo partaidetzari bost urtez eustea. Langile autonomoa bada, nahitaezkoa izango du bost urteko epean jarduera mantentzea. Ez da eskatuko akzioari edo partaidetzari bost urtez eutsi beharrik, edo bost urteko epean jarduerarekin jarraitzerik, baldin epe hori ez bada betetzen konkurtso prozedura batek eragindako enpresaren edo jarduera ekonomikoaren likidazioaren ondorioz.”

Hiru. 9. artikuluari 34. zenbakia gehitzen zaio; hona hemen testua:

“34. Autonomia erkidegoek ezarritako prestazio ekonomikoak, baliabide ekonomikorik ez dutenei iraupenerako baliabide ekonomikoak bermatzeko txertaketako errenta minimo kontzeptupean; bai eta autonomia erkidegoek edo toki entitateek ezarriko dituzten gainerako laguntzak ere, beren araudiaren arabera, laguntza emateko hainbat kolektibori: gizartean baztertuta geratzeko arriskuan daudenei; gizarte larrialdiko egoerak dituztenei; baliabiderik ez duten eta bizileku beharrak dituzten pertsoneri; edo elikadura, eskolaratze edo gainerako oinarrizko beharrak dituzten adingabeei edo ezinduei, beraiek eta beraien mende daudenek baliabide ekonomiko nahikorik ez badute. Prestazio horiek lanbide arteko gutxieneko soldata bider 1,5eko urteko baterako zenbatekoa izan dezakete, gehienez ere.”

Lau. 9. artikuluari 35. zenbakia gehitzen zaio; hona hemen testua:

“35. Indarkeriazko delituen biktimei emandako laguntzak, abenduaren 11ko 35/1995 Legean, indarkeriazko delituen eta sexu askatasunaren aurkako delituen biktimak laguntzeko eta so-rostekoan, jasotakoak; abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurrienean, jasotako laguntzak; eta genero indarkeriaren biktimei genero indarkeriaren biktima izateagatik emandako gainerako laguntza publikoak.”

Bost. 25. artikuluari 6. idatz zatia gehitzen zaio; hona hemen testua:

“6. Ez dira aplikagarri izango Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren IV. tituluko V. kapituluan ezarritako zuzenketak, emaitzaren aplikazioari dagozkionak.”

Sei. 28. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Hauxe egingo da etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodo erraztuaren bidez kalkulatzeko:

a) Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauan eta aurreko artikuluan ezarritako arauetan xedatutakoarekin bat etorri kalifikatu eta zenbatuko dira sarrerak eta gastuak, hauek izan ezik: narriaduraren ondoriozko galerak, amortizazioak, foru arau honen 27. artikuluko 5. erregelaren Bi idatz zatiko a) letran eta Hiru idatz zatiko a) letran aipatzen diren errentamendu, lagapen eta balio galeren ondoriozko gastuak, ez eta jarduerari atxikitako ondare elementuen ondoriozko irabaziak eta galerak ere.

b) Aurreko idatz zatian aipatutako sarreren eta gastuen arteko diferentzia kalkulatu da eta kopuru horri ehuneko 10 kenduko zaio, Foru Arau honen 27. artikuluko 5. erregelaren Bi idatz zatiko a) letran eta Hiru idatz zatiko a) letran aipatutako amortizazioengatik, narriaduraren ondoriozko galerengatik, alokairu gastuengatik, lagapenengatik edo balio galeragatik, eta gastu frogagaitzengatik.

c) Jarduerari atxikitako ondare elementuen irabazi eta galerak gehitu edo kenduko zaizkio aurreko b) letran esandakoaren arabera ateratzen den kopuru edo emaitzari, Foru Arau honen 25. artikuluko 3. idatz zatian xedatutakoari jarraituz.”

Zazpi. 35. artikuluko 4. idatz zatia honela geratzen da:

“4. Artikulu honetan aipatutako besteren kapitalen erakarketa eta erabilera islatzen dituzten aktiboei dagokienez, joko da ez dela sortzen higigarrien kapitalaren etekinik horiek kosturik gabe eskualdatzen direnean, zergadunaren heriotzaren zioz; eta halakoak inter vivos egintzengatik kostu gabe eskualdatzetik eratorritako higigarrien kapital negatiboaren etekina ere ez da zenbatuko”.

Zortzi. 41. artikuluko 2. idatz zatiko e) letra honela geratzen da:

“e) Ezkontzaren ondasun banantzearen araubide ekonomikoa edo izatezko bikotearen ondarearen araubide ekonomikoa azkentzen denean, baldin eta legearen aginduz edo epailearen ebazpen bidez konpentsazioren bat (diruzkoak edo ondasunak esleitzearen bitartez egindakoa) egiten bada ezkontideen edo izatezko bikotekideen arteko konpentsazio pentsioa ez den arrazoiren batengatik.

Letra honetan aipatzen diren konpentsazioek ez dute eskubiderik emango ordaintzailearen zerga oinarria murrizteko, eta ez da jasotzailearentzako errenta izango.

Idatz zati honetan aipatzen den kasuan, esleitutako ondasunen edo eskubideen balioa ez da inolaz ere eguneratuko.”

Bederatzi. 47. artikuluko 2. idatz zatia honela geratzen da:

“2. Aurreko idatz zatiko a), b), c) eta d) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, eta letra horietan adierazitako baloreen kostu gabeko eskualdaketen ondorioetarako, balore homogeneoak daudenean, zergadunak eskualdatutakoak lehenengo eskuratutakoak direla ulertuko da.

Erabat askatutako akzioak eskualdatzen badira, haien antzinasuna jatorrizko akzioena bera izango da”.

Hamar. 57. artikuluko 2. idatz zatiari j) letra gehitzen zaio; hona hemen haren edukia:

“j) Kreditu mugaeguneratu eta kobratu gabeen ondoriozko ondare galerak egotzi ahal izango zaizkio inguruabar hauetakoren bat barnean duen zergaldiari:

1. Eraginkor bihurtzea honako hauetakoren batean ezarritako kita bat: uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen 71 bis artikuluan eta laugarren xedapen gehigarrian aipatutako judizialki homologagarria den birfinantzaketa akordio batean; edo lege horretako X. tituluan aipatutako ordainketen akordio estrajudizial batean.

2. Zorduna konkurtso egoeran dagoela, eraginkor bihurtzea kredituaren zenbatekoan kita bat egitea adosten duen hitzarmena, uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legeak 133. artikuluan xedatutakoarekin bat; halakoetan, kitaren zenbatekoa izango du galerak.

Bestelakoetan, konkurtso prozedura amaitzea eta artean oraindik ordaindu gabe egotea kreditua, baldin eta ez bada adosten konkurtsoa amaitzea uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legeak 176.1 artikuluko 1., 4. eta 5. zenbakietan aipatutako kausak direla eta.

3. Urtebeteko epea igarotzea konkurtsokoa ez den prozedura judizial bat hasi zenetik eta prozedura horrek xede izatea kreditua gauzatzea kreditu hori artean ordaindu gabe dagoela.

Baldin kreditua j) letran aipatutako ondare galera zenbatu ondoren kobratu bada, ondare irabazi bat egotziko da kobratutako zenbatekoan kobrantza hori gertatu den zergaldian.”

Hamaika. 71. artikuluko 3. idatz zatia aldatzen da, eta honela geratzen da:

“3. Aurreko artikulua 1. idatz zatian aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenak egin dituzten bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuek aukera edukiko dute ekarpenok hurrengo bost ekitaldietan murrizteko, aipatutako muga errespetatuta, baldin eta zerga oinarri orokorrean murriztu ezin izan badira artikulu honen 1. idatz zatiko a) letran ezarritako gehieneko muga gainditzeagatik eta murrizketa aplikatzen den ekitaldian erretiratuta ez badaude.

Modu berean jokatu daiteke bai enpresa kontribuzioen gehiegiko zenbatekoekin, haien mugari dagokionez, bai artikuluan honen 1. idatz zatiko c) letran aipatutako guztirako muga aplikagarriekin.

Ekarpenak edo kontribuzioak zerga oinarri orokorrean ezin izan direnean murriztu hori nahikoa ez izateagatik, hurrengo bost ekitaldietan murriztu ahal izango dira, baldin eta murrizketa egiten den ekitaldian bazkide, partaide, mutualista edo aseguratua erretiratuta ez badago.

Halaber, hurrengo bost ekitaldietan murriztu ahal izango dira aurreko artikuluan 3. idatz zatian xedatutakoa dela bide egindako ekarpenetatik idatz zati horretan ezarritako muga gaintzeagatik zerga oinarri orokorrean murriztu ezin izan diren ekarpenak, baldin eta murrizketa egiten den ekitaldian bazkide, partaide, mutualista edo aseguratua den ezkontidea edo izatezko bikotekidea ordurako erretiratuta ez badago. Ekarpentak edo kontribuzioak zerga oinarri orokorrean ezin izan direnean murriztu hori nahikoa ez izateagatik, hurrengo bost ekitaldietan murriztu ahal izango dira, haiek gaintu gabe, baldin eta murrizketa egiten den ekitaldian bazkide, partaide, mutualista edo aseguratua den ezkontidea edo izatezko bikotekidea erretiratuta ez badago.

Erregela horiek ez zaizkie aplikatuko beren araudi finantzarioan jasotako gehieneko mugak gaintuzten dituzten ekarpen eta kontribuzioei.”

Hamabi. 107. artikuluko 1. idatz zatiko c) letra honela geratzen da:

“c) Espainiako lurraldean egoitza ez duten baina establezimendu iraunkorrek edo establezimendu iraunkorrik gabe bertan diharduten pertsona fisiko edo juridikoek eta gainerako entitateek, ordaintzen dituzten lanaren etekinei dagokienez eta atxikipena edo konturako sarrera dakarten gainerako etekinei dagokienez, baldin eta etekin horiek guztiak gastu kengarriak badira Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauko 24. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren errentak lortzeko.”

Hamahiru. Laugarren xedapen gehigarriko 4. idatz zatia honela geratzen da:

“4. Ordaindutako lehenengo primak bost urte baino gehiagoko antzintasuna izan beharko du, bizi arteko errenta eratzen den garaian.”

Hamalau. Bederatzigarren xedapen gehigarriko 4. idatz zatia aldatzen da, eta honela geratzen da:

“4. Aurreko paragrafoan jasotako araubidea zeinahi dela ere, kirolari profesionalak eta goi mailakoek aukera izango dute kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitateari ekarpenak egiten jarraitzeko, kirolari gisa egiten zuten lan jarduna amaitu arren edo izaera hori dagoeneko galdu arren.

Ekarpen horientatik murrizketak egin ahal izango dira pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergako zerga oinarri orokorrean, Pentsio planak eta funtsak arautzen dituen Legearen Testu Bateratuak (azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) 8. artikuluko 6. idatz zatian ezartzen dituen egoerak estaltzea helburu duen zatian.

Mutualisten eskubide kontsolidatuak gauzatu ahal izango dira soilik azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Pentsio planak eta funtsak arautzen dituen Legearen Testu Bateratuak 8. artikuluko 8. idatz zatian pentsio planei dagokienez jasotako kasuetan.

Ekarpen hauen baterako murrizketa muga gisa, Foru Arau honen 71. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoa aplikatuko da.

Nolanahi ere, ezin izango dira zerga oinarritik murriztu gizarte aurreikuspeneko sistemara egiten diren ekarpenak, horiek bazkideak, partaideak, mutualistak edo aseguratua erretiratu ondoko zergalditik aurrera egiten badira.

Foru Arau honen 70. artikuluko 4. idatz zatian ezarritakoa aplikatuko da, baldin eta zergadunak eskubide kontsolidatuak baditu Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Legeak, Sozietateen gaineko, Ez-egoiliarren errentaren gaineko eta Ondarearen gaineko zergen legeak partez aldatzen dituenak, hamaikagarren xedapen gehigarriaren Bat idatz zatiko 4. zenbakian jasotakoak ez diren kasuetan.”

Hamabost. Hogeita seigarren xedapen gehigarria gehitzen da. Hona hemen haren edukia:

“Hogeita seigarrena. Zordunak konkurtso prozeduretan eskuratutako errentak salbuetsiko dira.

Zerga honetatik salbuetsiko dira zordunek eskuratutako errentak, honako hauetakoren batean ezarritako zorren kiten eta ordainean emateen ondorioz agertzen badira: uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legean ezarritako prozeduraren arabera judizialki onartutako hitzarmen batean; lege horretako 71 bis artikuluan eta laugarren xedapen gehigarrian aipatutako judizialki homologatutako birfinantzaketa akordioan; X. tituluari aipatutako akordio estrajudizialean; edo lege horretako 178 bis artikuluan aipatutako ordaindu gabeko pasibo kentzeen ondorioz, betiere zorrak ez badira sortu jarduera ekonomikoak egitetik.”

Hamasei. Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria gehitzen da. Hona hemen haren edukia:

“Hogeita zazpigarrena. Kreditu mugaeguneratu eta kobratu gabeen ondoriozko ondare galerak.

Foru Arau honetako 57. artikuluko 2. idatz zatiko j) letran ezarritako aldi baterako egozpenaren erregela berezia ezartzearen ondorioetarako, j) letra horretako 3. zenbakian aurreikusitako egoera kontuan hartuko da soilik urtebeteko epea 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera amaitzen denean.”

Hamazazpi. Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria gehitzen da. Hona hemen haren edukia:

“Hogeita zortzigarrena. Entitate hartzekodun hipotekarioa onuradun duten aseguruetatik datozen etekinak.

Aseguru batean estalitako ezintasun kontingentziagatiko prestaziotik datozen errentak, prestazioa zergadunaren hartzekodun hipotekarioak jasotzen duenean aseguruaren onuradun delako, eta zergadunaren hipoteka zorra guztiz edo zati bat kentzeko betebeharra dagoenean, onuraduna zergaduna bera izango balitz egokituko litzaiokeen zerga tratamendu bera emango zaie errenta horiei. Nolanahi ere, errenta horiei inolaz ere ez zaie atxikipenik egingo.

Horren ondorioetarako, hartzekodun hipotekarioa kreditu entitatea izan beharko da, edo modu profesionalean hipoteka kredituak edo maileguak ematen dituen bestelako entitatea.”

Hemezortzi. Hamabigarren xedapen iragankorreko 1. idatz zatiko b) letra honela geratzen da:

“b) Lehenengo prima ordaindu zen egunetik bost urte baino gehiago pasatuta egotea.”

Hemeretzi. Hamalaugarren xedapen iragankorra honela idatzita geratzen da:

“Hamalaugarrena. 2012ko urtarrilaren 1aren aurretik eskualdatutako harpidetza eskubideei aplikagarri zaien zerga araubidea.

Foru Arau honetako 47. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran aipatzen den eskuratze balioa kalkulatzeko, 2012ko urtarrilaren 1aren aurretik eskualdatutako harpidetza eskubideengatik lortutako zenbatekoa kenduko da, salbu eta eskualdatze horietan lortutako zenbatekoa eskualdatzailearen ondare irabazitzat hartu bazen eskualdaketa egin zen zergaldian. Harpidetza eskubide guztiak eskualdatu ez badira, eskualdatutakoak lehenik eskuratutako baloreei dagozkiela pentsatuko da.”

Hogei. Hogeita batgarren xedapen iragankorra honela idatzita geratzen da:

“Hogeita batgarrena. Jarduera ekonomiko bati ekiteko inbertsioei begira kreditu entitateetan egindako gordailuengatik aplikatu daitezkeen kenkariaren araubide orokorra.

1. Urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, 92. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen jarduera ekonomiko bati ekiteko behar diren inbertsio eta gastuetarako diru kopuruak kreditu entitate batean gordailutzen dituzten zergadunek kenkaria aplikatzen jarraitu ahal izango dute aipatutako manuan ezarri den bezala, baldin eta egun horretan ez badira 3 urte pasatu kontua ireki zenetik.

2. Ez da Foru Arau honetako 90. artikuluan araututako kenkariaren oinarriaren zati izango urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauak 92. artikuluan araututako enpresarako aurrezki kontuetako saldoarekin eskuratutako partaidetzen edo akzioen zenbatekoa, baldin saldo horri kenkaria aplikatu bazaio.”

Hogeita bat. Hogeita hirugarren xedapen iragankorra gehitzen da. Hona hemen haren edukia:

“Hogeita hirugarrena. Antzintasun betekizuna, 2015eko urtarrilaren 1a baino lehen formalizatutako aseguru kontratuetako aurrezpen sistematikorako banakako planen tratamenduaren ondorioetarako.

2015eko urtarrilaren 1a baino lehen formalizatutako aurrezpen sistematikorako banakako planei aplikagarri izango zaie Foru Arau honen laugarren xedapen gehigarriaren 4. idatz zatian ezarritako bost urteko betekizuna.

Baldin 2015eko urtarrilaren 1a baino lehen formalizatutako aurrezpen sistematikorako banakako plan bati, edo Foru Arau honen hamabigarren xedapen iragankorrean araututako aseguru kontratu bati, epemuga aldatzen bazaio xede bakartzat hartuta biziarteko errentaren sorkuntza eguna aurreratzea aipatutako xedapenetan eskatzen den antzintasuna, lehenengo prima ordaindu zenetik bost urtekoa, izan dezan, aldaketa horrek ez du zerga eraginik izango hartzailearentzat.”

Bigarrena. Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenean, honako manu hauek aldatzen dira (aldaketek 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 107. artikuluko 1. idatz zatia honela geratzen da:

“1. Jarraian aipatutako direnak behartuta daude atxikipenak eta konturako sarrerak egitera, jasotzaileari dagokion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako ordainketa gisa, arauz zehazten den kopuruan, bai eta horien zenbatekoa Foru Aldundiari ordaintzera ere Ekonomia Itunean jasotako kasuetan eta erregelamendu bidez finkatzen den moduan:

a) Zerga honi lotuta eta salbuetsi gabe dauden errentak ordaintzen dituzten pertsona juridikoak eta entitateak, errentak eratzkitzeko araubidean dauden entitateak barne.

b) Ekonomia jarduerak egiten dituzten zerga honen zergadunak, jarduera horiek gauzatzean zerga honi lotutako eta salbuetsi gabeko errentak ordaintzen dituztenean.

c) Egoitza lurralde espainiarrean izan gabe, bertan establezimendu iraunkorrek zein iraunkorrik gabe jarduten duten pertsona fisikoak, juridikoak eta bestelako entitateak, beraiek ordaintzen dituzten lan etekinei dagokienez, bai eta atxiki edo kontura sartu beharreko beste etekin batzuei dagokienez ere, baldin eta Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Foru Arauak 24. artikuluan 2. idatz zatian aipatzen dituen errentak lortzeko gastu kengarriak badira.

Entitate batek, egoiliarra izan ala ez, lanaren etekinak ordaintzen badizkie Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauak 42. artikuluan ezarritakoaren arabera berari lotuta dagoen entitate egoiliar baten edo Espainiako lurraldean dagoen establezimendu iraunkor baten zerbitzuan ari diren zergadunei, atxikipena edo konturako sarrera zergaduna lanean ari den entitateak edo establezimendu iraunkorrek aplikatu behar du.

Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batean helbideratutako entitate aseguratzaileek, baldin Espainian zerbitzu eskaintza librearen araubide pean badihardute, atxikipena eta konturako sarrera aplikatu behar dituzte Espainian egiten dituzten eragiketetan.

Europar Batasuneko beste estatu batean helbideratuta dauden pentsio funtsek Espainiako legeriaren mende dauden enpleguko pentsio planak lurralde espainiarrean garatzen badituzte Europako Parlamentuak eta bertako Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an enpleguko pentsio funtsen jardueri eta ikuskapenari buruz emandako 2003/41/EE Zuzentarauan jasotakoari jarraituta, edo, bestela, haien entitate kudeatzaileek, atxikipena eta konturako sarrera aplikatu behar dituzte Araban egiten diren eragiketetan.

Misio diplomatikoak eta atzerriko estatuak Espainian dituzten bulego kontsularrak inoiz ere ez daude behartuta atxikipenik edo konturako sarrerarik egitera.”

Bi. Edukirik gabe uzten da hamahirugarren xedapen iragankorra.

II. KAPITULUA. SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA

2. artikulua. Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Araua, sozietateen gaineko zergarena, aldatzea

Lehenengoa. Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan, sozietateen gaineko zergarenean, aldaketak egiten dira. Aldaketa horiek 2015eko urtarrilaren 1az geroztik hasitako zergaldietan izango dituzte ondorioak. Hona hemen aldaketa horiek:

Bat. 31. artikuluko 1. idatz zatiari j) letra gehitzen zaio; hona hemen haren edukia:

“j) Ordenamendu juridikoaren aurkakoak diren jardueren gastuak.”

Bi. 32. artikuluko 4. idatz zatia honela geratzen da:

“4. Foru arau honetako 13. artikuluko 1. idatz zatian aipatutako mikroenpresek euren zerga oinarritik kengarriztat jo ahal izango dute euren zerga oinarri positiboaren ehuneko 20, idatz zati honetan ezarritakoa aplikatu baino lehen, Foru Arau honetako 48. artikuluan aipatutako errenta positiboak sartu baino lehen eta Foru Arau honen 55. artikuluan ezarritako zerga oinarri negatiboak konpentsatu aurretik, euren tamainari datxezkion zailtasunen zerga konpentsazio gisa.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa ez da aplikagarri izango baldin mikroenpresa interes ekonomikodun taldea bada, Espainiakoa edo Europakoa; edo enpresen aldi baterako elkarketa bada; eta Foru Arau honetako VI. tituluko III. kapituluan ezarritako araubide bereziaren pean ordaintzen badituzte zergak.

Idatz zati honetan xedatutakoa aplikatzea bateraezina izango da titulu honetako V. kapituluan ezarritako zuzenketak egitearekin.”

Hiru. 35. artikuluko 3. idatz zatia honela geratzen da:

“3. Foru Arau honen ondorioetarako, entitate batek atzerrian den establezimendu iraunkor baten bidez diharduela ulertuko da edozein titulurengatik bere jarduera osoa edo zati bat egiteko edozein motatako instalazioak edo lantokiak, etengabe edo ia beti, dituenean Espainiatik kanpo.

Zehazki, establezimendu iraunkortzat joko dira ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga arautzen duen Foru Arauaren 13. artikuluko 1. idatz zatian azaltzen direnak.

Establezimendu iraunkorra dagoen herrialdeak Espainiarekin hitzarmenen bat badu, nazioarteko zergapetze bikoitza saiheste aldera, hitzarmenaren arabera jokatuko da.”

Lau. 45. artikuluko 2. idatz zatiko b) letrako azken paragrafoa eta 7. idatz zatiko azken paragrafoa honela geratzen dira, hurrenez hurren:

“Entitateko partaidetzaren ehunekoari ez dagokion diferentzia zatia entitatearentzat errenta izango da, eta bazkide edo partaidearentzat, berriz, liberalitatea. Establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergako zergadunen kasuan, errenta ondare irabazitzat joko da, Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Foru Arauko 13. artikuluko 2. idatz zatiko k) letrako d’) letran ezarritakoarekin bat etorriz.”

“Horren ondorioetarako, Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Foru Arauko laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikagarri izango da.”

Bost. 67. artikuluko 9. idatz zatia honela geratzen da:

“9. Foru Arau honetako 14. artikuluan aipatzen diren ondare sozietateei ez zaizkie aplikatuko kapitulu honetan araututako kenkariak, ez eta zerga araudian aurreikusitako kuota likidoaren bestelako kenkaririk ere.”

Sei. 74. artikuluko 1. idatz zatiko c) letra honela geratzen da:

“c) Espainiako lurraldeko egoiliar ez diren bazkideak, entitatearen egoitza Espainian egon zein ez, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kargapean egongo dira, baldin eta, Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Foru Arauko 13. artikuluan edo nazioarteko zergapetze bikoitza ekiditeko hitzarmenean ezarritakoaren arabera, haiek taldearen bitartez egindako jarduerak establezimendu iraunkorra egotea eragiten badu.”

Zazpi. 89. artikuluko 1. idatz zatiko e) letraren edukia idatz zati horretako f) letra da orain, eta a) eta e) letrak aldatzen dira. Horrez gain, 5. idatz zatia gehitu zaio artikuluko horri. Honela geratzen dira aldatutako letrak eta idatz zatiak:

“a) Zerga taldeko partaide diren entitate guztiei dagozkien banakako zerga oinarriak. Zerga oinarrietan ez dira honako hauek sartzen: banakako zerga oinarri negatiboen konpentsazioa, Foru Arau honetako 32. artikuluko 4. idatz zatian ezarritako zerga konpentsazioa, eta Foru Arau honen IV. tituluko V. kapituluan ezarritako emaitzaren aplikazioari dagozkion zuzenketak.”

“e) Foru Arau honen 32. artikuluko 4. idatz zatian ezarritako zerga konpentsazioa, dagokionean; hori kalkulatzeko, artikuluko honen 5. idatz zatian xedatutakoari jarraituko zaio.”

“5. Foru Arau honen 32. artikuluko 4. idatz zatian ezarritako talde fiskalaren zerga konpentsazioaren zenbatekoa kalkulatzeko, taldearen zerga oinarria hartuko da oinarritzat, baina aurrez 1. idatz zatiko e) eta f) letratan xedatutakoa aplikatu beharko da.”

Zortzi. Hamahirugarren xedapen gehigarriko 1. eta 2. idatz zatietako c) letrak honela geratzen dira, hurrenez hurren:

“c) Hartzailea ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergaduna bada eta establezimendu iraunkorrik ez badu, ezin da aplikatu Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Foru Arauko 14. artikuluko 1. idatz zatiko l) letran ezarritako salbuespena.”

“c) Eskualdatzailea edo hartzailea ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergaduna bada eta establezimendu iraunkorrik ez badu, ezin da aplikatu Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Foru Arauko 14. artikuluko 1. idatz zatiko h) letran ezarritako salbuespena.”

Bigarrena. Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 130. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da (2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondorioak). Honela idatzita geratzen da:

“1. Entitateek, ondasun eta jabe komunitateek barne, zerga horri lotuta errentak ordaintzen badituzte, atxikipenak edo sarrerak kontura egiteko beharra izango dute, konturako ordainketa gisa, arauk zehaztutako kopurua; eta ezarritako kasu eta moduetan, dagokien zenbatekoa sartzeko beharra ere izango dute Arabako Foru Ogasunera, Ekonomia Itunean ezarritakoarekin bat etorritik. Enpresaburu indibidualek eta profesionalek jarduera ekonomikoak gauzatzean ordaindutako errentei dagokienez, atxikipenak eta sarrerak egiteko betebeharra izango dute, bai eta pertsona fisiko, juridiko eta Espainiako lurraldean ez dauden bestelako entitateek ere, bertan dihardutenean establezimendu iraunkor baten bidez.”

Era berean, Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batean helbideratutako entitate aseguratzaileek, baldin Espainian zerbitzu eskaintza librearen araubide pean badihardute, atxikipena eta konturako sarrera aplikatu behar dituzte Araban egiten diren eragiketetan.”

III. KAPITULUA. KOOPERATIBEN ZERGA ARAUBIDEA

3. artikulua. Ekainaren 9ko 16/1997 Foru Araua, kooperatiben zerga araubidearena, aldatzea

3. idatz zatia gehitzen zaio ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauko, kooperatiben zerga araubideareneko, 27. artikuluari (2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondorioak). Honela geratzen da:

“3. abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 67. artikuluko 1. idatz zatian aurreikusitako kenkarien muga aplikatuko zaio aurreko 2. paragrafoan aipatutako kenkariak egoki bada aplikatu eta gero sortuko den kuotari.”

IV. KAPITULUA. OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGA

4. artikulua. Maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Araua, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergarena, aldatzea

Aldaketa hauek egiten dira maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauan, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergarenean:

Bat. 13. artikulua 2. idatz zatia honela geratzen da:

“2. Interesdunek, Foru Arau honetako 38. artikuluan xedatutakoaren arabera aurkeztu behar duten aitorpenean edo autolikidazioan, kargapeko ondare-gehikuntzak biltzen dituen ondasun eta eskubideetako bakoitzaren benetako balioa jarri behar dute. Aitortutako balioa egiaztatutako balioa baino handiagoa bada, betiere lehenengoa hartuko da kontuan, salbu eta Foru Arau honetako 22. artikuluko 2. idatz zatiko 0 taldean aipatutako eskuraketetan.”

Bi. 21. artikulua 4. idatz zatia honela geratzen da:

“4. Eskualdatutako ondasun edo eskubideen balio egiaztatua ezingo da izan eskualdaketaren aurretik kausatzaileak edo dohaintza-emaileak ondarearen gaineko zergaren ondorioetarako egindako azken aitorpenean egotzi zaien balioa baino txikiagoa, salbu Foru Arau honetako 22. artikuluko 2. idatz zatiko 0 taldean aipatutako eskuraketetan.”

Hiru. 22. artikuluko 3. idatz zatia honela geratzen da:

“3. Legez ezinduak direnek egindako eskuraketetan (ezintasun gradua, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuko 148. artikuluan ezarritako baremoaren arabera, ehuneko 33 eta 65 artekoa dela) 56.109 euroko murrizketa aplikatuko da.

Murrizketa 176.045 eurokoa izango da, aurrean aipatutako arautegiaren arabera, ezintasuna ehuneko 65ekoa edo hortik gorakoa dutenentzat; edo mendetasun arina (I. gradua) edo handiagoa dutenentzat, abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren I. eta II. eranskinetan ezarritakoaren eta apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuak — abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, ezarritako mendetasuna baloratzeko baremoa onartzen duenak— xedatutakoaren arabera. Inolaz ere ezin izango da murrizketa ezarri aldi berean bi kontzeptuengatik.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaz gainera, pertsona horiei arau hauek aplikatuko zaizkie:

a) Aurreko 2. idatz zatian aipatutako murrizketaren orde, ahaidetasun gradua gorabehera, 38.156 euroko murrizketa aplikatuko da, eta kopuru horri 4.770 euro gehituko zaizkio kausadunari hogeita bat urte betetzeko falta zaion urte bakoitzeko. Guztira, murrizketaren zenbatekoa ezin da izan 119.930 euro baino gehiago.

b) Foru arau honetako 24. artikuluan aipatutako I tarifa aplikatuko da.

Idatz zati honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko 0 taldearen barruan egonik lege ezinduak edo mendekoak diren pertsonen, haien ezintasun edo mendetasun maila edozein dela ere.”

Lau. 22. artikulua 8. idatz zatia honela geratzen da:

“8. Etxebizitzaren jabari osoa, gozamina, jabetza soila, azalerako eskubidea edo erabiltzeko eta bertan bizitzeko eskubidea doan eskuratzen bada, “inter vivos” edo “mortis causa”, eta eskuratzaila etxebizitza horretan eskualdatzailearekin bizi izan bazen eskualdaketa gertatu aurreko bi urteetan, eskuraketa horrek ehuneko 95eko murrizketa izango du etxebizitzari dagokion zerga oinarrian, 212.242 euroko mugarekin.

Bizikidetasunari buruzko baldintza Zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabiliz frogatu ahal izango da.”

Bost. 32. artikulua 4. idatz zatia honela geratzen da:

“4. Jaraunspena banatzearen ondorioz sortzen diren adjudikazio-gaindikinak likidatzean Ekonomia Itunean ezarritakoa bete beharko da.”

Sei. 38. artikulua 1. idatz zatia honela geratzen da:

“1. Subjektu pasiboek Foru Arau honetan aipatutako zerga egitate guztiak hartzen dituen autolikidazioa aurkeztu behar dute eta, bidezkoa izanez gero, zerga zorra ordaindu behar dute arauz ezartzen diren baldintzak betez.”

Zazpi. Hirugarren xedapen iragankorra honela idatzita geratzen da:

“Hirugarrena. 1988ko urtarrilaren 1a baino lehenago kontraturiko polizei 1987ko abenduaren 31n indarra zuen arautegia aplikatuko zaie.”

V. KAPITULUA. ONDARE ESKUALDAKETA ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGA

5. artikulua. Martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarena, aldatzea

Aldaketa hauek egiten dira martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauan, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarenean:

Bat. Indargabetu egiten da 69. artikulua Bat idatz zatiko B) letrako 29. zenbakia.

Bi. 70. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Urriaren 14ko 44/2015 Legearen arabera lan sozietatetzat jotzen direnek ehuneko 99ko hobaria izango dute lan sozietateko langile bazkide gehienen jatorri den enpresarenak diren ondasun eta eskubideak Zuzenbidean onartutako edozein bitartekoren bidez kostubidezko ondare eskualdaketen modalitatean eskuratzetik sortuko diren kuotetan, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan.

Aurreko paragrafoan aipatutako legean ezarritakoarekin bat etorritik, lan sozietateei lan izaera kentzeak berekin ekarriko du lan sozietate izatearen ondorioz izandako zerga mozkinak galtzea eta itzuli beharra, sozietateari lan izaera kentzea ekarri dion inguruabarra sortzen den unetik aurrera, eta dagozkion berandutze interesak izango ditu.”

VI. KAPITULUA. ONDAREAREN GAINEKO ZERGA

6. artikulua. Martxoaren 11ko 9/2013 Foru Araua, ondarearen gaineko zergarena, aldatzea

Aldaketa hauek egiten dira martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauan, ondarearen gaineko zergarenean (2016ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 5. artikuluko Bederatzi idatz zatia aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Bederatzi. Ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenak, 14. artikuluan xedatutakoaren arabera etekinak salbuetsita dituzten baloreak.”

Bi. 6. artikuluko Bi idatz zatiko a) eta b) letrak aldatzen dira, eta honela geratzen dira:

“a) Entitatearen jarduera nagusia ez izatea ondare higikorra edo higiezina kudeatzea. Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 14. artikuluan ezarritakoaren arabera entitate batek ez baditu betetzen bere aktiboaren erdia baino gehiago balorez osatuta dagoela edo jarduera ekonomikoei lotuta ez dagoela jotzeko ezarritako baldintzak, pentsatuko da ez duela kudeatzen ondare higikorra ez higiezina eta, beraz, jarduera ekonomikoa egiten duela ulertuko da.

Entitateak aldi berean beste entitate batzuetako partaidetzak badauzka, ondare higikorra ez duela kudeatzen pentsatzeko, baldintza hauek bete behar dira: entitate horietako bakoitzean gutxienez boto eskubideen ehuneko 5 eduki behar du zuzenean, partaidetza horiek baliabide pertsonal eta materialen antolaketa egokiaren bidez zuzendu eta kudeatu behar ditu, eta partaidetza daukan entitateen jarduera nagusia ezin da izan ondare higikorra ez higiezina kudeatzea, aurreko leerroaldean zehaztu den bezala.

b) Entitatea sozietatea bada, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 14. artikuluan ezarritako kasuak ez gertatzea.”

Hiru. Aldatu egiten da 6. artikuluko Lau idatz zatia, eta honela geratzen da:

“Lau. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, aktibo bat ezinbestekoa da jarduera ekonomiko baterako baldin aktiboa jarduera horri lotuta badago Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauak 26. artikuluan ezarritakoaren arabera; salbuespena: artikulu horretako 1. idatz zatiko c) letrako azken tartekian aipatzen diren aktiboak (hauek ere jarduera ekonomiko bati lotuta egon daitezke).

Foru Arau horretako 27. artikuluko 5. eta 6. erregeletan aipatutako aktiboak eta abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 31. artikuluko 3. idatz zatian aipatutakoak lotuta daudela joko da, manu horien arabera aktiboaren gastuetatik kengarritzat jo daitekeen proportzio berean.”

Lau. 6. artikuluko Sei idatz zatiko a) eta b) letrak aldatzen dira, eta honela geratzen dira:

“a) Aurreko Bat idatz zatian ezarritakoaren arabera salbuetsita dauden ondasun higiezinak, baldin eta hirugarrenei laga bazaizkie edo haien gaineko eskubide errealak eratu badira. Horren barruan sartzen dira ondasun horiek errentan edo azpierrean ematea eta ondasunok erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eratzea, izena eta izaera gorabehera; salbuespena: higiezinaren errentamenduko jarduera ekonomiko bati lotuta dauden ondasun higiezinak, baldin eta zergadunak jarduera horretarako erabiltzen duen plantillan gutxienez batez beste bost langile badaude urtean (besteren konturako langileak, lanaldi osokoak eta dedikazio eskusiboa dutenak). Horretarako, ez dira zenbatuko Foru Arau honen Bi idatz zatiko c) letran aipatutako zergadunarekin harremana duten langileak, edo abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 42. artikuluan ezarritakoaren arabera zergadunarekin lotutzat jotzen diren langileak.

b) Partaidetzen balioan ekonomia ustiapenei lotuta ez dauden ondasun higieziinei dagokien zenbatekoa.

Aurreko Bi idatz zatian aipatzen diren partaidetzen balioan ondasun higieziinei dagokien zenbatekoa, Foru Arau honetako 18. artikuluko Bat idatz zatiko azken paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik, baldin eta ondasun higiezinak hirugarrenei laga bazaizkie edo haien gaineko eskubide errealak eratu badira (honen barruan sartzen dira ondasun horiek errentan edo azpierrean ematea eta ondasunok erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eratzea, izena eta izaera gorabehera; salbuespena: entitatearen plantillan gutxienez batez beste bost langile badaude urtean, hain zuzen ere besteren konturako langileak, lanaldi osokoak eta dedikazio eskusiboa dutenak). Horretarako, ez dira zenbatuko Foru Arau honen Bi idatz zatiko c) letran aipatutako zergadunarekin harremana duten langileak, edo abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 42. artikuluan ezarritakoaren arabera zergadunarekin lotutzat jotzen diren langileak.

Idatz zati honetako a) eta b) letretan aipatzen den plantillako batez besteko langile kopurua kalkulatzeko ondokoak eduki behar dira kontuan: langileek aurreko paragrafoan eta aurreko a) letran ezarritako betekizunak bete behar dituzte, zergadunak kapitalean gutxienez ehuneko 25eko partaidetza zuzena edo zeharkakoa daukan entitate batean egon behar dira enplegatuta, eta partaidetzak artikulua honetan ezarritako betekizunak bere behar ditu. Ildo honetatik, batez besteko plantilla kalkulatzeko kontuan hartu beharreko entitateak zehazteko ez beste ezertarako, artikulua honetako Bi idatz zatiko a) eta b) letretan ezarritako betekizunak zergadunak zuzenean zein zeharka partaidetza daukan entitate guzti-guztietan bete behar dira, eta artikulua honetako Bi idatz zatiko d) letran ezarritako betekizuna zergadunak zuzeneko partaidetza daukan entitateetan soilik bete behar da.

Letra honetan ezarritako salbuespena ez da aplikatuko zergadunak abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, VI. tituluko VIII. kapituluaren ezarritako araubide berezia ezartzen duen entitatearen baten partaidetza badauka; edo aipatutako Foru Arauko 115. artikuluko 1. idatz zatian aipatutako kasuetan.”

Bost. 13. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“13. artikulua. Jarduera ekonomikoak.

Pertsona fisikoen ondasunak eta eskubideak jarduera ekonomikoari atxikita badaude, haien zerga oinarritzat kontabilitatean islatzen den balioa hartuko da, hain zuzen ere aktiboaren eta pasiboaren arteko diferentzia, baldin eta kontabilitatea Merkataritza Kodean xedatutakoarekin bat badator. Salbuespena: ondasun higiezinak, ibilgailuen, itsasontzien eta aireontzien zerga oinarria Foru Arau honetako 12. artikuluan eta 20. artikuluan, hurrenez hurren, xedatutakoaren arabera balioa izango da, salbu kontabilitateko balioa handiagoa bada aipatutako arauak aplikatuz eratorriko dena baino.

Ondasunak jarduera ekonomiko bati lotuta dauden ala ez ebazteko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko arauak aplikatuko dira. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauaren 27. artikuluko 5. eta 6. erregeletan aipatutako aktiboak lotuta daudela joko da, erregela horien arabera aktiboaren gastuetatik kengarritzat jo daitekeen proportzio berean.

Kontabilitaterik ezean, edo kontabilitatea ez badator bat Merkataritza Kodean xedatutakoarekin, zerga honi buruzko gainerako arauak aplikatuko dira balioak kalkulatzeko.”

Sei. 18. artikuluko Bat idatz zatia aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Bat. Aurreko artikuluan aipatutakoak ez beste akzio eta partaidetza batzuen kasuan, balorazioa onartutako azken balantzeko balio teorikoa izango da.

Hala ere, zerga honen zerga oinarria kalkulatzeko, ondasun higiezinak, bigarren mailako merkatuetan kotizatzen duten baloreen, talde inbertsioko erakundeetako partaidetzen eta Foru Arau honetako 20. artikuluan aipatzen diren ibilgailuen, itsasontzien eta aireontzien kontabilitateko balio garbia gabe hauxe hartuko da kontuan, hurrenez hurren: Foru Arau honetako 12. artikuluan, 15. artikuluan, 17. artikuluan, artikulua honetako Bi idatz zatian eta 20. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatu behar den balioa, salbu kontabilitateko balio garbia handiagoa bada aipatutako arauak aplikatuz eratorriko dena baino. Gainera, kontuan eduki behar da zergadunak zeharka, beste entitate batzuetako partaidetzen bitartez, daukan ondasun higiezinak, bigarren mailako merkatuetan kotizatutako baloreen, talde inbertsioko erakundeetako partaidetzen, eta ibilgailu, itsasontzi eta aireontzien balioa, eta erregela hau aplikatuko zaie, baldin eta kapitaleko partaidetza beste entitate horien kapitalaren ehuneko 5ekoa bada gutxienez. Halakoetan, zergadunaren partaidetza ez ezik ondokoak ere zenbatuko dira: ezkontidearena edo izatezko bikotekidearena (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako bikotea), aurrekoenak, ondorengoak edo bigarren graduak alba ahaideenak (ahaidetasunaren jatorria hauetako bat izan daiteke: odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa), eta abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 42. artikuluan xedatutakoaren arabera lotutako pertsona eta entitateenak.”

Zazpi. 33. artikuluko Hiru idatz zatiko a) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“a) Zergadunak ezkontideari, izatezko bikotekideari (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako bikotea), aurreko bati, ondorengo bati edo bigarren graduako albo ahaide bati (ahaidetasunaren jatorria hauetako bat izan daiteke: odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa) eratziki badio, edo abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 42. artikuluan xedatutakoaren arabera lotuta dagoen pertsona edo entitate bati.”

VII. KAPITULUA. ARABAKO ZERGEN FORU ARAU OROKORRA

7. artikulua. Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra, Arabako zergena, aldatzea

92 ter artikulua berria eranstean zaio Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrari, eduki honekin:

“92 ter artikulua. Zerga betebeharrak nabarmen ez betetzeagatik sortzen diren egoeren publizitatea.

1. Zerga Administrazioak aldizka argitaratzea erabakiko du zerga zorrenatik eta zehapengatik Arabako Foru Aldundiarekin zorrak dauzkatenen zerrendak, baldin eta egoera hauek sortzen badira:

a) Ordaintzeke dauden zerga zorren eta zehapenen zenbateko osoa 1.000.000 euro izatea. Ondorio horietarako, Arabako Foru Aldundiaren titularitateko tributuak baino ez dira kontuan hartuko; hau da, AFAko organoei –eta haiei baino ez– egotzi behar izan zaie tributuak aplikatzeko, zehapenak jartzeko ahalmenaz baliatzeko eta berraztertzeke ahalmenarako eskumena.

b) Zerga zor eta zehapen horiek ordaindu gabe izatea borondatezko epealdian ordaintzeko epea igaro ondoren.

Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko zerga zor eta zehapen geroratuak, zatikakoak eta etenak; ez eta borondatezko epealdian ordaintzeko epea amaitu ez zaienak ere Arabako Foru Aldundiarekin zorrak dauzkatenen zerrenda argitaratzeko erabakiaren aurreko urtearen abenduaren 31n.

Halaber, ez dira kontuan izango aurreko lerroaldean aipaturiko datan zergapekoari jakinarazi ez zaizkion zerga zorrenak eta zehapenak.

2. Aurreko idatz zatian aipatzen diren zerrendetan informazio hau eman behar da:

a) Zordunen identifikazioa zehaztasun honen arabera:

- Pertsona fisikoak: izena, abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

- Foru arau honetako 35. artikuluko 3. paragrafoak aipatzen dituen pertsona juridikoak eta erakundeak: sozietatearen izen osoa eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia.

b) Ordaintzeke dauden eta zerrenda argitaratzeko ondorioetarako kontuan izan behar diren zorren eta zehapenen baterako zenbatekoa.

3. Artikulu honetan xedatutako publizitatea Arabako Foru Aldundiaren titularitateko tributuaren gainekoa baino ez da izango; hau da, AFAko organoei –eta haiei baino ez– egotzi behar izan zaie tributuak aplikatzeko, zehapenak jartzeko ahalmenaz baliatzeko eta berraztertzeke ahalmenarako eskumena.

4. Arabako Foru Aldundiarekin zorrak dauzkatenen zerrendan sartzeko baldintzak betetzen direla erabakitzeke erreferentzia data izango da zerrenda argitaratzeko erabakiaren aurreko urtearen abenduaren 31, berdin diolarik zenbat diru zor den erabaki hori hartzerakoan zein zerrenda hori argitaratzerakoan.

Arabako Foru Aldundiarekin zorrak dauzkatenen zerrendan sartzeko proposamena kasuan kasuko zordunari jakinaraziko zaio, eta hark alegazioak egin ahalko ditu 10 egun balioduneko epean jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Ondorio horietarako, jakinarazpen hori egin dela ulertzeko nahikoa izango da Zerga Administrazioak egiaztatzea hura behin jakinarazten ahalegindu dela interesdunaren zerga egoitzan, eta jakinarazpenak erabakiaren testua osorik jaso beharko du.

Aurreko lerroaldean ezarritako salbuespena kontuan izanda, foru arau honetako 108. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, hala badagokio.

Interesdunaren alegazioak huts materialen, egiteko hutsen edo huts aritmetikoen gainekoak baino ez dira izango; baita artikuluko honetako 1. paragrafoan adierazitako baldintzak betetzearen gainekoak ere.

Alegazioen izapidearen ondorioz, Zerga Administrazioak zer zuzendu behar den erabaki dezake, behin modu frogagarrian egiaztatzen denean ez direla betetzen artikuluko honetako 1. paragrafoan zehaztutako baldintzak.

Aurreko lerroaldeko zuzenketa hori ofizioz ere erabaki ahalko du Zerga Administrazioak berak.

Zuzendu beharrekoa zuzendu ondoren, Arabako Foru Aldundiarekin zorrak dauzkatenen zerrenda argitaratzeko erabakia emango du Arabako Foru Aldundiak.

Erabaki hori interesdunari egiteko jakinarazpena egintzat joko da hura eta Arabako Foru Aldundiarekin zorrak dauzkatenen zerrenda argitaratzen direnean.

Arabako Foru Aldundiarekin zorrak dauzkatenen zerrenda argitaratzeko erabakian zerrenda noiz argitaratuko den ezarriko da, betiere urtean urteko lehenengo seihileko naturalean argitaratu beharko delarik.

Zerrenda betiere bide elektronikoen bidez argitaratuko da, hartu beharreko neurriak hartuko direlarik haren edukia ez dadin indexatu Interneteko bilatzaileen bidez, eta zerrendak ez dira eskuragarri egongo behin hiru hilabete igarotzen direnean argitaratzen direnetik.

Zerrenda argitaratzeko beharrezkoak diren datuen tratamendua abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoan, eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako haren erregelamenduan xedatutakoari lotuko zaio.

5. Arabako Foru Aldundiarekin zorrak dauzkatenen zerrenda argitaratzen denean zehaztuko da ezen han islatutako egoera dela artikuluko honen 4. paragrafoan adierazitako erreferentzia datan zegoen egoera bera; beraz, zerrenda berdina argitaratuko da, nahiz eta zordunak zerbait egin izan erreferentzia data horren ondoren, zerrendan ageri diren zor eta zehapenei dagokienez.

Artikulu honetan xedatutakoak ez dio inola ere eragingo foru arau honetan ezarritako aurkaratze araubideari, zerga zorrak eta zehapenak direla-eta egindako jarduera eta prozedurei dagokienez, ez eta haiek direla-eta tributuak aplikatzeko ondoren abiarazi diren edo abiaraz daitezkeen jardun eta prozedurei ere.

Artikulu honetan ezarritako prozeduran egindako jardunek ez dute etenaldirik eragingo, artikuluan araututako informazio-argitalpenari dagokionez, foru arau honen 67. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

6. Zerrenda argitaratzeko erabakiak administrazio bidea amaituko du."

VIII. KAPITULUA. HIRI LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

8. artikulua. Uztailaren 19ko 46/1989 Foru Araua, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duena, aldatzea

Aldaketa hauek sartzen dira uztailaren 19ko 46/1989 Foru Arauan, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergarenean:

Bat. 2. artikuluari 3. paragrafoa eranstean zaio, eta honela idatzita geldituko den:

“3. Zerga hau ordaintzetik salbuetsita daude pertsona fisikoek egindako eskualdaketak, hipoteka zor duenaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainean emateagatik haren gaineko hipotekekin bermatutako zorrak kitatzeko, baldin eta zor horiek kreditu erakundei edo mailegu eta hipoteka kredituak ematea ogibidetzat daukan beste edozein erakunderi zor bazaizkie.

Paragrafo honen ondorioetarako, egoera berdintzat joko da baldin eta hipoteka daukan zordunaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainean eman badu hura eskuratzeko sortzen diren zorrak bermatzeko abal emaleak.

Halaber, ordaintzetik salbuetsita daude aurreko baldintza horiek betetzen dituzten eta epai-leek edo notarioek aginduta hipotekak betearaztearen ondorioz egiten diren etxebizitza eskualdaketak.

Salbuespenerako eskubidea izateko, zordun edo bermatzaile eskualdatzaileak edo haien familia unitateko beste edozein kidek ezin du eduki jabetzan, etxebizitza besterentzea saihestu ahal izateko unean, hipotekaren zorra guztiz kitatzeko nahikoa balio daukan beste edozein ondasun edo eskubiderik. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da. Edonola ere, ondoren kontrakoa egiaztatzen bada, bidali beharreko zerga likidazioa bidaliko da.

Idatz zati honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko da Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauak 87. artikuluko 8. idatz zatian jasotakoa.

Familia unitatearen kontzeptuari dagokionez, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauko 98. artikuluan xedatutakoa beteko da. Ondorio horietarako, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legeari jarraituz eraturitako izatezko bikoteak ezkontzaren izaera bera izango du.”

Bi. Edukirik gabe uzten dira 3. artikuluko 3. eta 4. paragrafoak.

IX. KAPITULUA. BANKU FUNDAZIOEN ZERGA ARAUBIDEA

9. artikulua. Banku fundazioen zerga araubidea

1. Banku fundazioek sozietateen gaineko zergaren araubide orokorrean ordainduko dituzte zergak, eta ez zaie aplikatuko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubidearenak eta mezenasgorako zerga pizgarrienak, ezarritako zerga araubide berezia.

2. Aurrezki kutxa eta banku fundazioen Legeko 43. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorritik, kreditu entitate batean ituna dela bide ari diren fundazioek (arruntek zein banku fundazioek) partaidetza gradu bereko banku fundazioei dagokien zerga tratamendu bera jasango dute.

10. artikulua. Zuzenketak banku fundazioen gastuen arloan

1. Banku fundazioek abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 30. artikuluan ezartzen duena aplikatu ahal izango dute beren emaitzetatik ongintza eta gizarte ekintzak finantzatzeko erabiltzen dituzten diru kopuruei dagokienez, jarduera horiei buruzko arauarekin eta foru arau horretan xedatutakoarekin bat etorritik.

2. Banku fundazioek ongintzarako eta gizarte ekintzarako jartzen dituzten diru kopuruek haiek partaidetza duten kreditu entitateen zerga oinarria murriztu dezakete proportzio honetan: entitate horiek emandako dibidenduei banku fundazioaren gutzirako sarreretan dagokien ehuneko. Murrizketaren zenbatekoa ezin da izan dibidenduen zenbatekoa baino gehiago. Horretarako, banku fundazioak dibidenduak ordaindu dizkion kreditu entitateari jakinarazi behar dio zenbatekoa den aurrekoaren arabera kalkulaturako murrizketa, eta azaldu behar dio ez duela aplikatuko kopuru hori zerga kenkaria dakarren partida modura sozietatearen gaineko zergaren autolikidazioan.

Banku fundazioak ez badu erabiltzen zenbatekoa ongintzarako ez gizarte ekintzetarako, horren berri eman beharko dio kreditu entitateari, bidegabe kendutako kopuruak erregularizatu ditzan abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 127. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorritz.

11. artikulua. Zerga baterakuntzaren araubide berezia eta banku fundazioak

1. Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 85. artikuluko 3. idatz zatian ezarritakoaren ondorioetarako, ondokoak menpeko sozietateak dira: batetik, Aurrezki kutxa eta banku fundazioen Legeak 43. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen dituen banku fundazioak, baldin eta zerga talde bateko entitate nagusiak ez badira; bestetik, halako fundazioek partaidetza osoa duten entitateak, hain zuzen ere kreditu entitateen partaidetza edukitzeko erabiltzen direnak.

2. Baldin eta banku fundazio batek zergaldi batean zerga talde bateko entitate nagusia izateari uzten badio, kreditu entitateak horren subrogazioa bereganatuko du zergaldiaren hasieratik, eta ez dira gertatuko zerga taldea desagertzearen ondorioak, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 99. artikuluan aipatzen dituenak, ondoko kasuetan izan ezik: entitatea taldetik irteten bada menpekoa ez izateagatik, aurrean aipatutako foru arauak 85. artikuluko 3. idatz zatian eta artikuluko honetan aurreko idatz zatian ezartzen denarekin bat etorritz.

12. artikulua. Kreditu entitateak berregituratzeko eta desegiteko eragiketak

Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, zazpigarren xedapen gehigarrian xedatzen duena aplikatuko zaie bankuak berregituratzeko araudiaren itzalpean kreditu entitateen artean egiten diren negozio eskualdaketei eta aktibo edo pasibo eskualdaketei, nahiz eta eragiketa foru arau horretako 101. eta 111. artikuluetan aipatzen diren eragiketekin bat ez etorri.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. 2012ko abenduko aparteko ordainsaria.

Sektore publikoko langileek uztailearen 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak, aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurrienak, kendutako 2012ko abenduko aparteko ordainsaria berreskuratu izanaren ondorioz ordaindutako zenbatekoak ordainketa egingo den zergaldian egotziko dira, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako.

Bigarrena. Banku fundazioen zerga araubidea. Geroratutako zergen aktiboak Zerga Administrazioaren aurrean eskatu daitekeen kreditu bihurtzea.

Azaroaren 29ko 14/2013 Errege Lege Dekretuak, Espainiako zuzenbidea Europar Batasuneko finantza erakundeen gainbegiratze eta kaudimenari buruzko araudiaren arabera egokitzeko premia neurrien gainekoak, azken xedapenetako bigarreneko Bigarren idatz zatian ezartzen duen araubidea (geroratutako zergen aktiboen trukean Zor Publikoaren baloreak jasotzeaz ezarritakoa ez beste guztia) sozietateen gaineko zergaren zergadun batzuei aplikatuko zaie, hain zuzen ere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 Erregelamenduak (EB), kreditu entitateei eta inbertsio enpresei zuzentzat ezarri beharreko betekizunei buruzkoak eta 648/2012 Erregelamendua (EB) aldatzen duenak, xedatzen duena bete behar dutenei, geroratutako zergen aktiboen (zerga oinarri negatiboak lotuak zein bestelakoak) zati jakin bati dagokionez: zordunen balizko kaudimengabeziagatik kredituak edo beste aktibo batzuk narriatzearen ondoriozko galeretarako horniduren zenbatekoa. Salbuespena: aurreko horniduretan ez dira sartzen abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 22. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran ezartzen dena aplikatu zaien hornidurak, ez eta uztailearen 5eko 24/1996 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 12. artikuluko 2. idatz zatiko a) letran ezartzen duena aplikatu zaienak ere.

Hirugarrena. Banku fundazioen zerga araubidea. Balio erantsiaren gaineko zergaren aldaketa.

Bosgarren xedapen gehigarria eranstean zaio urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuari, balio erantsiaren gaineko zergarenari; hona hemen testua:

“Bosgarrena. Banku fundazioak entitate taldeetan sartzea.

Aurrezki kutxa eta banku fundazioen Legeak 43. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen dituen banku fundazioak arau honetako IX. tituluko IX. kapituluaren arautzen diren entitate talde bateko menpeko entitateetat jo ahal izango dira, baldin eta enpresariak edo profesionalak badira eta zergaren aplikazio lurraldean badaukate egoitza, bai eta banku fundazio horiek zuzenean zein zeharka kapitalaren ehuneko 50etik gorako partaidetza daukaten entitateak ere.

Aurrezki kutxa eta banku fundazioen Legeak 43. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen duen kreditu entitatea izango da entitate nagusia, hain zuzen ere taldearen jardueraren inguruko politikak eta estrategiak eta barruko kontrola eta kudeaketa modu loteslean ezartzen dituenak.”

Laugarrena. Banku fundazioen zerga araubidea. Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren aldaketa.

Martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauak, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarenak, 69. artikuluko Bat idatz zatiko A) letrako 2. zenbakian ezarritakoa aldatzen da; honela geratzen da:

“2. Aurrezki kutxak eta banku fundazioak, beren gizarte ekintzetarako egiten dituzten eskuraketei dagokienez.”

Bosgarrena. Banku fundazioen zerga araubidea. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren aldaketa.

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifen lehen ataleko 812 taldeari buruzko oharra aldatzen da (“Aurrezki kutxak”); tarifa horiek uztailaren 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuak onartu zituen. Honela geratzen da:

“OHARRA: Talde honetan aurrezki entitateak daude, hala nola, Aurrezki Kutxen Espainiako Konfederazioa, aurrezki kutxak, baserritarren aurrezki kutxak, kreditu kooperatibak, banku fundazioak eta antzeko entitateak.”

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Aurrezki kutxen eta banku fundazioen menpeko entitateei aplikatuko zaien araubide iragankorra .

Foru Arau honetako II. tituluko 3. artikuluan aipatzen den zerga taldeko menpeko entitateetat hartuko dira aurrezki kutxa edo banku fundazio batek partaidetza osoa daukan entitateak, hain zuzen ere kreditu entitateen partaidetza edukitzeko erabiltzen direnak Aurrezki kutxa eta banku fundazioen Legeko lehenengo xedapen iragankorrean ezartzen den epealdiaren barruan.

Bigarrena. Arabako Foru Aldundiarekin zorrak dauzkatenen zerrenda.

Arabako Foru Aldundiarekin zorrak dauzkatenen eta Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 92 ter artikuluan xedatutakoa aplikatuz egiten den lehen zerrendan sartzeko bete behar diren baldintzak betetzen direla zehaztuko da 2016ko martxoaren 31 erreferentzia data oinarritzat hartuta. Arabako Foru Aldundiarekin zorrak dauzkatenen lehenengo zerrenda hori 2016ko bigarren seihileko naturalean zehar argitaratuko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira Foru Arau honetan xedatutakoaren aurka doazen xedapenak eta, bereziki, maiatzaren 20ko 7/97 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, Arabako zerga sistemara sartzen dituenak martxoaren 24ko 4/97 Legeak, lan sozietateenak, ezarritako hainbat neurri, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari eta sozietateen gaineko zergari dagokienez.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea eta ondorioak.

1. Foru Arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta artikuluetan ezarritako egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

2. Foru Arau honen IX. kapituluak 2014ko urtarrilaren 1az geroztik hasitako zergaldietarako sortuko ditu ondorioak. Salbuespenez, hirugarren, laugarren eta bosgarren xedapen gehigarriek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak.

3. Foru arau honen VIII. atalak eragina izango du 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta aplikatu ahal izango zaie data horren aurretiko preskribatu gabeko zerga-egitateei.

Bigarrena. Gaitzea

Arabako Foru Aldundia gaitu egiten da xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abenduaren 29a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA